

# Geografia

- BATXILERGOA
- LANDIBE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL



## GEOGRAFIA

## GEOGRAFÍA

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

**1. Ariketa praktikoa:** 4 puntu.

Kontuan hartuko da mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea.

**2. Gai baten garapena:** 4 puntu.

Kontuan hartuko dira ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna.

**3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea:** 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0tik 0,5era kalifikatuko da.

Kontuan hartuko da kontzeptuak argi eta zehatz definitzea.

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

**1. Prueba práctica:** 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

**2. Desarrollo de un tema:** 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.


**3. Definición de conceptos geográficos:** 2 puntos.

Deben ser definidos en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.

## A AUKERA

1. Espainiako mapa litologikoaren iruzkina (4 puntu)




2. Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde mediterraneoan (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
  - Uren muga-lerroa/Uren banalerroa (0,5 puntu)
  - Zentsua/Errolda (0,5 puntu)
  - Urbanizazio barreiatua (0,5 puntu)
  - Industria-deslokalizazioa (0,5 puntu)

**GEOGRAFIA**

**GEOGRAFÍA**

**B AUKERA**

1. Espainiako erregimen demografikoen bilakaeraren grafikoaren iruzkina (1886 urtetik gaur egun arte) (4 puntu)



Iturria: INE.

2. Industrializazioaren garaiko eta industrializazio osteko hiria (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
- Tolestura-mendikatea (0,5 puntu)
  - Nekazaritza intentsiboa (0,5 puntu)
  - Europar Batasuna (0,5 puntu)
  - Garapen iraunkorra (jasangarria) (0,5 puntu)



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

#### Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoak eta iruzkinak erlazionatzea eta kokapen kartografiko zehatzak egitea.
- ezagupen-maila

#### Irizpide espezifikoak

### A AUKERA

#### 1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Kontuan hartuko dira:

Mapak adierazten duenak iruzkinaren mamia izan behar du. Datu kartografikoak dira komentatu eta baloratu beharrekoak gaiari buruzko ezagutza teorikoaren arabera.

Gune bakoitzari buruz, hauek aipatu behar dira: kokapena, materialak eta ezaugarriak eta ondoriozko erliebe-formak.

**Silize-lurrak:** Kanbriarraurreko eta era primarioko arrokek osatzen dute.

- a) Kokapena: Iberiar penintsulako mendebaldea, Kantauriar mendikatearen mendebaldea (Asturiar mendigunea), Erdialdeko Sistema, Toledoko mendiak eta Sierra Morena barne direlarik. Beste zona batzuk mendigune zaharren aztarnetan kokatzen dira: Pirinioetako ardatzean, Iberiar sistemaren ipar-mendebaldean, Kataluniako Kostalde aurreko mendikatearen iparralde, Penibetikoak.
- b) Material nagusiak: granitoa eta arroka metamorfikoak (gneisa, kuartzita, arbel metamorfikoak)
- c) Erliebe-formak: granitoren alterazioaren ondorioz sortzen diren erliebe motak (harkaiztiak)

**Kare-lurrak:** Tertziarioan tolesturiko era sekundarioko arrokek.

- a) Kokapena: Pirinioaurrea, Eusko mendiak, Kantauriar mendikatearen ekialdea, Iberiar sistema, Kataluniako kostalde aurreko mendikatearen hegoaldea, Subbetikoak.
- b) Material nagusia: kareharriak.
- c) Erliebe-formak: erliebe karstikoa (lapiazak, poljeak, dolinak ....)

**Buztin-lurrak:** Tertziarioan eta Kuaternarioan jalkitako arrokek osatzen dute.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

- Kokapena: Iparraldeko eta Hegoaldeko submesetetako sakonuneak, Guadalquivir eta Ebroko sakonuneak
- Material nagusia: buztina.
- Erliebe-formak: Karkabak eta badland-ak

### 2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Paisaia bakoitzaren kokapena, ingurune fisikoa (klima, erliebea), nekazaritza-egiturak eta landa-espazioaren erabilera komentatu behar dira.

- Isurialde mediterraneoaren paisaiak: labore-paisaia (Arabako erdialdeko eskualdeak, klima subozeanikoa) eta mahasti-paisaia (Arabako Errioxa, barneko klima mediterraneoak) desberdindu behar dira. Topografia leunagoa. Ureztatze nekazaritza.
- Arabako erdialdeko eskualdeak: populazioa herrixka txikitan antolatua. Nekazaritza-ustiapen handiagoak, lurzati bilduak. Nekazaritza (lautadetan) eta basogintza (mendian). Laboreak, patata eta azukre-erremolatxa.
- Arrabako Errioxa: populazioa herri handiagotan bilduta. Nekazaritza-ustiapen txikiak. Mahastia nagusi, jatorri-deitura kalifikatua.

### 3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Uren muga-lerroa/Uren banalerroa:** Bi arro hidrografiko banatzen duen lerroa.

**Zentsua:** Denbora jakin bateko estatu bateko biztanle guztien zenbatzea beren ezaugarri demografikoak, kulturalak, ekonomikoak eta gizartekoak kontuan hartuta.

**Errolda:** Urtero urtarrilaren 1ean eguneratzen den udalerrri bateko biztanleriaren zerrenda, biztanleen zenbait ezaugarri ere biltzen dituena.

**Urbanizazio barreiatua:** Hiria lur-eremu zabalak modu ez jarraituan erabiliz sakabanatzea. Hiriaren eta landaren arteko muga argirik gabeko urbanizazio-prozesu berria da, hiri postindustrialari lotua.

**Industria-deslokalizazioa:** Enpresa industrial baten jarduera osoa edo parte bat bere jatorrizko kokalekutik kostu txikiagoak (soldatak, zergak, eta abar) edo langile kualifikatuak dituen beste herrialde batzuetara edo beste industria-eskualde batzuetara lekualdatzea.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### B AUKERA

#### 1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Hau hartuko da kontuan:

- Bi kurbak batera deskribatzea eta esanahia adieraztea.
- Gertaerarik aipagarrienak nabarmentzea (Jaiotzetan, 1930-1956 tarteko jaitsierak, 1975 eta 1998 urteen arteko beherakada zorrotza, 1956-1965 arteko berreskuratzea; 1998-2008 arteko berreskuratze xumea. Heriotzetan, 1918ko igoera bortitza, Gerra Zibilaren urteetako igoera, 1982. urtetik, biztanleriaren zahartzea dela medio, igoera xumea. Berezko hazkundean: 1918an eta Gerra Zibilean tasa negatiboa agertzea; 1920ko hamarkadan eta 1950eko hamarkadaren erdialdetik 1960ko hamarkadaren erdialdera bitartean, hazkunde nabarmena; 1990eko urteetan zero inguruko hazkundea, eta, XXI. mendeko lehen hamarkadan, nolabaiteko berreskuratzea.
- Grafikoan agertzen diren faseak jartzea: XX. mendearen hasierara arte, erregimen zaharra; 1900 eta 1975 artean, trantsizio demografikoa; oraingo erregimena, trantsizioaren ostekoa, 1975. urtetik aurrera.
- Arrazoiak aipatzea: kolera-izurritea (XIX. mendea) eta gripe-izurritea (1918), Gerra Zibila, haur-hilkortasunaren eta, oro har, hilkortasunaren kontrako borroka, bizi-itxaropenaren luzatzea, jaiotzaren kontrola, bizi-mailaren hobetzea, emakumearen parte hartzea lan-merkatuan, etab.
- Kontuan hartuko da, bereziki, emandako erantzunak grafikoaren iruzkinarekin eta trantsizio-ereduarekin daukan erlazioa.

#### 2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Galdera hau baloratzean, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Hiri mota bakoitza bere garai kronologikoan kokatzea.
- Azpialdi historikoak ezagutzea, halakorik baldin bada.
- Kasu bakoitzean, urbanizazioaren faktoreak.

Industrializazioaren garaiko hiria: Urbanizazio-tasaren hazkunde handia. Urbanizazioari lagundu zioten faktore administratiboak (1833ko probintzia-zatiketa) eta ekonomiko eta sozialak; urbanizazio industrialaren etapak (XIX. mendeko erdialdera arte; XIX. mendeko erdialdetik Gerra Zibilera arte; gerraostea; garapen-fasea); industriaren eta hirugarren sektoreko jardueren zeregina.

Industrializazio osteko hiria: urbanizazio-tasaren dezelerazioa eta haren kausak. Urbanizazioari bultzatzen dioten faktoreetan gertatutako aldaketak: industriak eragin txikiagoa du, eta hirugarren sektoreko jarduerak, berriz, handiagoa. Urbanizatutako eremuen handitu egin dira.

#### 3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Tolestura-mendikatea:** Sekundarioan eta Tertiarioan itsas arroetan metatutako material sedimentarioen tolesturaren ondorioz orogenesi alpetarrean sortutako mendiak.

**Nekazaritza intentsiboa:** Ekoizpen-baliabideak (eskulana, makineria, ongarriak, eta abar) modu intentsiboan erabiliz azalera-unitatetik ekoizpen kantitaterik handiena atera nahi duen nekazaritzako ekoizpen-sistema.

**Europar Batasuna:** Europako Ekonomia Erkidegoaren oinordekoa den komunitate ekonomiko eta politikoa, 1993an sortua. Europako 28 estatuk osatuta dago. Haren organo erabakitzaile nagusiak Parlamentua, EBren Ministro-kontseilua eta Batzordea dira.

**Garapen iraunkorra/Garapen jasangarria:** etorkizuneko belaunaldien beharrianak arriskuan jarri gabe oraingo belaunaldien beharrak asetzea posible egiten duen garapena.

2014